

LAG-EN LURRALDE-EREDUA ETA EUSKAL HIRIA NET:

D Lurralde-ekarpenak eta Berrikuntza

- D.1. Sareak eta paisaiak bikaintasunaren lurraldean
- D.2. Metropoli-eremuak. Berrikuntza Lurralde Bereziak
- D.3. Hiri ertainak eta eremu funtzionalak
- D.4. Berrikuntza Nodoak**
- D.5. Euskal Hiriko ingurune fisikoa eta paisaiak

D.4. Berrikuntza Nodoak

4.1. Ekonomia berrirako guneak

Euskadik datozen urteetan aurre egin beharko dien eraldaketa, lehiakortasun eta hazkunde ekonomikoko erronkei erantzuna emateko, beharrezkoa da biztanleek prestakuntza-maila altua edukitzea eta instituzioek aldaketa-prozesuak bultzatzeko egitura egokia izatea. Informazioa, ezagutza eta berrikuntzarako ahalmena ekonomia berriaren oinarritzko osagaiak dira.

Jarduera berritzaileak barne hartzeko berariaz zuzenduriko guneak garatzea da EAEko ekoizpen-ehunaren eraldaketarako ekimen garrantzitsuenetako bat. Hori da hiru euskal hiriburuetan proposatzen diren ekimenen helburua; Europako hegoaldean ekonomia berrirako bikaintasun-guneen artean kokatzeko bokazioa dute.

Berrikuntza Nodoak, EAEko lurralde-eremuetan jarduera berritzaileen garapena eta eraldaketa ekonomikoko prozesuak bultzatzeko proposamen estrategikoa dira. Berrikuntza Nodoek ikerketa- eta teknologia-zentroak eta ekonomia berriko sektore emergentei lotutako jarduera berritzaileak hartzen dituzte, ekoizpen-tradizioarekin eta eskualde bakoitzaren indarguneekin bat eginda. "Berrikuntza Nodo" horiek ekonomia-jarduera, bizitegi, ekipamendu, natura- eta paisaia-elementu, kultura, aisia, hezkuntza, ikerketa eta beste hainbat arlotako guneak hartzen dituzte.

Lurralde-eremu bakoitzeko ekoizpen-klusterrei lotutako profilarekin, Berrikuntza Nodoak ingurumen- eta hiri-bikaintasuneko gune gisa ulertzen dira, erabilera-nahasketarekin eta nazioko eta nazioarteko proiektzioa duten ekonomia-jarduera berrien nagusitasunarekin. Bizitzeko, lan egiteko, ondo pasatzeko eta ikasteko guneak dira, kokatuta dauden lurraldearen bikaintasun-osagaien inguruan gaikako bokazioa duten lekuak.

4.2. Teknologia-parkeen etorkizuna

Euskal Autonomia Erkidegoak teknologia-parkeen sare bikaina du. Beste lurralde-eremu batzuetan abian jarritako ekimenez gain, teknologia-parke bat dago euskal hiriburu bakoitzaren ingurunean. Arkitektura bereziko eremu gisa egituratzen dira, eta teknologia berritzaileen arloan eta produktu eta zerbitzu aurreratuak prestatzen lan egiten duten enpresak dira gehienak.



Euskal hiriburuetakoko teknologia-parkeak hiri-inguruneetan eraiki dira, eta horrek, nolabaiteko isolamendua sortu du. Etorkizunari begira, beren erakargarritasuna eta ahalmen berritzaileak areagotzeko aukera dago, hiriei eta beren inguruko ezagutza-guneei lotuta. Dokumentu honek teknologia-parkeak eta hiriguneak gehiago integratzea lortzeko proposamenak egiten ditu, hainbat ekintza eta ekimen planteatuz, hala nola, Txorierrin, Nerbioi itsasadararen inguruan, Donostiako Berrikuntzaren Etorbidean, Irungo trenbide-zabaltzan eta Gasteizko Berrikuntzaren Ardatzean proposatutako berrikuntza-gune berrien bitartez.

4.3. Industrializazio-gune ohiak

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera da gure ekonomiaren zutabeetako bat. Kalitatezko industria-guneak izatea gure lehiakortasunaren oinarrietako bat da. Industrialdeak lurraldean txertatuta planteatu behar dira, irisgarritasun handiarekin, enpresen ingurumen-arazoei erantzunak emanez eta, gero eta gehiago, aniztasuneko eta erabilera-nahasketako gune gisa.

Kasu bitxia da industrializazio zaharreko guneena. Industria-instalazio zaharkituz edo agortutako meatzez beteriko azalera zabalak utzi ditu atzean industrializazioak. Horietako batzuk, ingeniariaren eta industria handiaren ikono bereziak dira. Askok, gure hirietan aukera berriak eskainiko lituzketen kokaleku estrategikoak okupatzen dituzte. Industrializazio zaharreko guneak arkitektura bereziko eremuak dira, nortasun-elementu bikainak eta, gaur egun, berrikuntzari eta sormenari loturiko erabilera berriak har ditzakete.

Gure hirietan kokaleku estrategikoak dituzten industrialde eta industrializazio zaharreko guneak eraldatzeko eta berrerabiltzeko ekimena proposatzen da, berrikuntzari eta sormenari loturiko hiri-funtzio berriak txertatzeko. Gune horien tipologia- eta arkitektura-berezitasunak eremu bereziak sortzen ditu, ekonomia berriaren jarduerarako eta bizimodu eta lan-mota berrietarako kokaleku izateko erakargarriak direnak.



Gune horien hiri-funtzioa birdefinitzeko aukera interesgarria dago, pabiloiak erabilera berriak izateko edukiontzi handi gisa berrerabiliz beren izaerari eutsita eta hiri-funtzio berrien ezarpenean garrantzi handiko eragiketak garatzeko espazio berezi bat aprobetxatuta.

4.4. Gune historikoak eta Nortasun Nodoak

Hiri askotan, gune historikoak, hirigune tradizionalak eta arkitektura bereziko espazioak artearekin, sormenarekin eta diseinuarekin lotutako pertsona eta jarduerak erakartzeko leku bihurtzen ari dira, kasu askotan, komunikazio eta multimediarako teknologia berriei lotuta.

Sormena eta berrikuntza errazago sortzen dira nortasuna duten lekuetan. Euskal Autonomia Erkidegoan hirigintza- eta arkitektura-balio handiko 69 hirigune historiko eta hiri-eremu ditugu, hala nola, Bilbo eta Donostiako zabalgunek, itsasertzeko eta landako herriguneak eta baita oso erakargarriak diren hainbat eremu berezi ere. Gune horiek, etorriko den ekonomia-etapa berrian egiteko garrantzitsua izan dezakete.

Nortasuna duten guneek ezaugarri bereziak dituzte: eskala-tamaina, hiri-erakargarritasuna, arkitektura, izaera, kokapena, elkarrekinzarako aukerak eta zerbitzu eta ekipamenduetarako

berehalako sarbidea. Ezaugarri horiek nabarmen bereizten dituzte hiri-inguruko garapen berrien aurrean eta kalitatezko bizitegi-alternatiba eskaintzen dute, bizilagun berriak erakartzeko eta ongizatearen eta garapenaren funtsezko oinarri gisa kohesionatutako komunitateak eratzeko ahalmen handikoa. Ekonomia berrirako eta gizarte berrirako bikaintasun-guneak dira eta guztiz bateragarriak azken belaunaldiko azpiegitura digitalarekin.

Artea eta teknologia berriak uztartzeak ohiz kanpoko aukera-eremua eskaintzen du. Gogoeta orokor horretan enklabe horien etorkizuna jarduerara hauetara bideratzeko aukera antzematen da.

Horretarako, ezinbestekoak izango dira hiriguneak berritzeko programak, nortasun-ezaugarriak berreskuratzea, bere izaera errespetatzen duen hiri-diseinua, eremu horiei azpiegitura telematiko ona ematea eta artea, diseinua eta teknologia berriak uztartzen dituzten profesionalak erakartzeko programa eta proiektuak sustatzea.

4.5. Gune berezi berritzaileak

Berrikuntza-gune berriek ez dute, nahitaez, aurreko etapako teknologia-parkeak izan behar. Gero eta maizago dira zentro historikoak, kostaldeko herriguneak, industrializazio zaharrekiko guneak, landa- eta nekazaritza-paisaiak edo arkitektura

bereziko hiriguneak. Lana, bizilekua eta aisia errealitate erakargarri, iradokitzaile eta bizikalitate handikotik bereizi ezin diren atal gisa uztartzeko gai diren leku bereziak dira.

Lurraldeko bikaintasun-osagaiei eta kanpoaldearekin lotzeko nodo handiei, esaterako, aireportuei, abiadura handiko geltokiei edo goi-mailako unibertsitatei loturiko eremuak, eremu kritikoak dira jarduera berritzaileak eta talentua eta sormena duten pertsonak hartzeko duten potentzialagatik.

Funtsezkoa da botere publikoek gure gizarteak lehiakortasun eta iraunkortasuneko ezinbesteko faktore gisa epe luzera duen potentzial berritzailea handitzeko dauden aukerak aprobeitzatzeko modua ematen duten ekimenak sustatzea. Honako hauek dira potentzial berritzailea duten gune batzuk: Txorierrri eta Nerbioi itsasadarraren ingurunea Bilboko metropolian, Berrikuntzaren Etorbidea Donostian, trenbide-zabaltza Irunen eta Berrikuntzaren Ardatza Gasteizen.

Berrikuntza Nodoetarako lurralde-irizpideak

a. Ekonomia-jarduera, bizilekua, lana eta aisia herritarrek elkartzeko lekuekin uztartzen dituzten guneak dira Berrikuntza Nodoak. Erabilera berritzaileak hartzeko ahalmena dute. Horretarako, inguruneke eremuen ekonomia- eta hiri-eraldaketan eragiten dute eta ekipamenduak, gune adierazgarriak eta nortasun-elementuak dituzte.

b. EAEko Berrikuntza eta Lurralde Programa prestatuko da jarduera berritzaileak hartzeko potentziala duten gune eraikiak identifikatzeko eta erakustaldi-efektuko ekintza pilotuak proposatzeko. Horretarako, funtzio horiek eraldatu eta egokitzeko ekintzak eta haiek gauzatzeko behar diren kudeaketa- eta koordinazio-sistemak ezarriko dira.

c. Gizarte-intentsitatea duten guneak sortu behar dira, anitzak eta erakargarriak, kalitate handiko ingurunea bermatzeko beharrezkoak diren erabilera- eta jarduera-nahasketaren eta ekipamendu eta azpiegituren zuzkiduraren bidez.

d. Berrikuntza Nodoak identifikatu eta garatzeko kontuan hartuko dira honako lurralde- eta hirigintza-erreferentzia hauek:

d.1. Kokapen berezi edo berezietan egongo dira, lurraldearen hainbat bikaintasun-osagai elkartzen diren kokapenetan, hain zuzen ere.

d.2. Inguruneke hiri- eta natura-paisaian txerztatzea izango dute xede, hari balioa emanda eta hura hobetzen lagunduta.

d.3. Konektagarritasun handia izango dute hirigune nagusiekin eta kanpoaldearekin lotzeko azpiegiturekin, esaterako, aireportuekin eta abiadura handiko tren-geltokiekin, azkar eta eraginkortasunez lotuko dituzten errepide eta garraio kolektibo bidezko konexio onekin.

d.4. Mugikortasun-sistema iraunkorrak eta erakargarriak izango dituzte: pasealekuak eta oinezkoentzako guneak, bizikletentzako bide-sareak, ekobusak eta soft car ez kutsatzaileak, etab.

d.5. Azken belaunaldiko azpiegitura digitala eta telekomunikazio-zerbitzuak, wi-fi eraikinak eta kaleak, domotika, azpiegituren eta zerbitzuen kudeaketa adimenduna, etab.

d.6. Beren diseinua ingurumen-bikaintasunera bideratuko da. Horretarako, hirigintza eta arkitektura bioklimatikoko irizpideak txertatuko dira, energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoko sistemak erabiliko dira, ez da isuri kutsatzailekerik eragingo eta uraren eta hondakinen kudeaketa eraginkorra eta integrala egingo da.

d.7. Kalitatea gune publikoetan eta harremantarakoetan, elkartzeko eta elkarrekintzarako giro erakargarriak sortuz: kaleak, plazak, pasealekuak eta bulebarrak, aisia- eta kirol-guneak, etab.

d.8. Hiriguneetan kokatuta daudenean, bizitegi-eskaintzaren aniztasuna: etxebizitza sozialak, alokairu-eskaintza, loft-ak, jabekidetzak, familia bakarreko etxebizitzak, apartamentuak, etab.

d.9. Jarduera-guneen aniztasuna: enpresa-etxeak, berrikuntza-kuboak, tailerrak, estudioak, bulegoak, ekoizpen-loftak, etab.

e. Berrikuntza Nodo bakoitzerako orientazio estrategiko egokia eta profil bereizgarria identifikatuko dira tokiko enprekin eta ekonomia-ehunarekin, horien ekoizpen-espezializazioekin eta I+G jarduerekin lotuko dituzten jakineko jarduera eta sektore espezifikoaren inguruan.

f. Parke teknologikoei dagokienez, hiriguneekiko integrazio fisiko eta funtzionala areagotzeko ekintzak garatuko dira eta inguruneke ezagutzazentzuek barneko eraldaketa-prozesua gauzatu behar dute haiek gero eta aniztasun funtzional handiago batez hornitzeko. Aniztasun funtzional horrek aukera eman behar du erabilera-nahasketan duten hiri-komunitateak garatzeko.

g. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-campusen loturiko "Parke Zientifikoak" sorrera sustatuko da, hezkuntza-arloa eta enpresa-arloa uztartuko dituztenak eta irudiaren, arkitekturaren kalitatearen, espazio publikoen eta berdeguneen ikuspegitik oso ondo zainduta dauden funtzio anitzeko gune gisa eratuta daudenak eta, aldi berean, irisgarritasun-baldintza onak, garraio kolektiboko sistemak eta azpiegitura telematiko ahaltsua dituztenak.

h. Parke Zientifikoek askotariko tipologiako jarduerak-guneak izan behar dituzte, bai unibertsitateko I+G zentroentzako prestakuntza- eta ikerketa-zentroen eta lehendik dauden enpresen kokapena erraztera zuzendutakoak, eta baita ekintzaile berriak hartzeko leku egokiak eskaintzera zuzendutakoak ere. Gune horietan euren

lekua izan behar dute zerbitzuek edo aisia-jarduerak, eta baita erabiltzaileen izaera berritzaileari dagokionez oso selektiboak diren berrikuntza-guneek ere.

i. Lurralde- eta udal-planek hiriguneen erdigunean kokatutako industrializazio zaharrek guneak eta industrialdeak eraldatu eta berrerauzteko aukerak aztertuko dituzte, berrikuntzari eta sormenari loturiko hiri-funtzio berriak txertatzeko. Gune horien tipologia- eta arkitektura-berezitasunak eremu bereziak sortzen ditu, ekonomia berriaren jardueretarako eta bizimodu eta lan-mota berrietarako kokaleku izateko erakargarriak direnak.

j. Nortasuna duten guneak, esaterako, hirigune historikoak, hiru hiriburuetako zabalgunak eta kostaldeko eta landako herriguneak espazio berezituak eta kalitate handikoak dira. Horrek, ekonomia berrirako bikaintasun-eremu bihurtzen ditu, biztanle eta jarduera berriak erakartzeko ahalmen handikoak. Sektore- eta lurralde-plan-gintzak funtzio horiek hartzeko potentziala duten eremuak identifikatuko ditu eta esperientzia pilotuen garapena sustatuko du hiri-berrikuntzako programak garatuta, nortasun-ezaugarriak indartuta, guneen izaera errespetatzen duen hiri-diseinuarekin, azpiegitura telematiko bikainarekin eta artearekin, ikerketarekin, ezagutzarekin eta teknologia berriekin lotutako pertsonak eta jarduerak erakartzeko programak sustatuta.

k. Berrikuntza Nodoak sortzeko estrategiak garatuko dira Txorierrri haranean eta Nerbioi

itsasadarraren aldamenean dauden Bilboko metropoliko berritze-guneetan, Donostiako Eremu Funtzionalean, Pasaia badiaren, Irungo trenbide-zabaltzan eta trenbidea lurperatzearen ondorioz Gasteizen unibertsitatearen aldamenean sortuko den erdigunean.